

HITZARMENA

Madriren, 2002 ko irailaren hogeitaseian.

ELKARTUTA

Alde batetik, On Francisco José Hernando Santiago jaun gorena, Auzitegi Goren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lehendakaria, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko ordezkartzan eta 2002ko ekainak bost eguneko Akordio Plenarioarekin adostasunez.

Bestetik, On José María Michavila Núñez jaun gorena, Justizia Ministroa, Justizia Ministerioko ordezkartzan.

Eta bestetik, On Eduardo Zaplana Hernández-Soro jaun gorenak, Lan eta Gizarte Gaien Ministroa, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioko ordezkartzan

ADIERAZTEN DUTE

I) Familia indarkeriak, egungo gizarteko arazo premiazkoenatariko bat supotzen du. Zentzu honetan, zifrek, familia indarkeria oso sustraitua jarreitzen duela eta horren ondorioz sortutako heriotz biktima kopurua jeisten ez dela frogatzen dute, nahiz eta tratu txarreatatik jarritako salaketak ugaritu.

II) Familia indarkeriaren arazo larriak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Plenoak 2001eko martxoaren 21 eguneko bileran, "*Familia indarkeriaren aurkako jokabidearen Gida praktikoa*" onartzea eragin zuen. Bertan, modu sistematizatu batean, indarreko legerian aurreikusitako jokabide juridikzionalen irizpideak biltzen ziren, gai honetako helburua erakunde juridikzionalen eraginkortasuna indartzea izanik; Konstituzioan eta legeetan aurreikusitako esparruaren barruan eta aipatutako erakundeen erabateko independentziarenganako errespetuaz, beraien funtzioa betetzeko.

III) Ministro Kontseiluak, 2001eko maiatzaren 11 eguneko bileran, 2004 urterarte indarrean egongo zen “Familia indarkeriaren aurkako II Akzio Plana” onartu zuen. Plan honetan, “neurri legegile eta prozedurazkoei buruzko” 2. jarduketa eremu barruan, 10 ordinalaz, hurrengo begiesten da: *“Zigor Kodeko eta Prozedura Kriminalaren Lege aldaketen onarpenetik aurrera tratu txarreatatik sortutako prozesuei eta Auzitegiek hartutako Epaiei jarreipen bat emateko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin proposamenak egin eta erkarlanean aritzea”*.

IV) Emakumearen Institutua, familia indarkeriaren aurkako Akzio planean aurreikusitako egitasmoak bultzatu eta koordinatzeko gaitasuna duen Estatuko Administrazio Nagusiaren Erakundea da. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, nahiz eta familia indarkeriaren aurkako Akzio planaren eraketan parterik hartu ez izan, aurreko puntuko proposamen idatzia jaso eta bereganatzen du.

Esku-hartzaileek, Hitzarmen hau izenpetzeko nahikoa gaitasun onartuz,

ITUNTZEN DUTE

LEHENENGO.- Hitzarmen honen nahia III) puntuan ezarritako lankidetzak eratzten du, gogoan izanik, aipatutako puntuak dioten prozesu eta epaien jarreipenak Zigor Kodeko eta Prozedura Kriminalaren Legeko tratu txarren biktimen babeserako arloan, ekainak 9ko 14/1999 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik hasi beharko litzatekeela.

BIGARREN.- Adierazitakoan, “Familia Indarkeriaren Behatokia” izenez tapenarekin Batzorde bat eratzten da, hurrengo modu honetan osatua:

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lehendakaria, zeinek Batzordearen Lehendakaritza hartuko duen.
- Justizia Ministroa.
- Lan eta Gizarte Gaien Ministroa.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Bi Batzordekide.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lehendakariak, Batzordeko bere presentzia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusitik aukeratutako Batzordekidean ordezkatu ahal izango du, Kontseilua osatzen duten beste bi Batzordekideen presentziaren aurreiritzirik gabe.

Lehendakariaren ez agertzearen kasuan, Batzordearen lehendakaritza, aurrekoak aukeratutako batzordekideak hartuko du.

Justizia eta Lan eta Gizarte Gaien Ministroek, gutxienez Lehendakari Orokorreko kargua duten eta Departamentu berekoak diren titularretan utzi ahal izango dute beraien Batzordeko presentzia.

Batzordeko Idazkaritzaren eginbeharrak, hitzarekin baina botorik gabe, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Letratu batek hartuko ditu.

Batzordearen funtzionamendua, organo bilduei buruzko Administrazio Publikoetako eta Administrazio Prozedura Erkideko azaroak 26ko 30/1992 Legeak dituen aurreikuspenetan oinarrituko da.

Batzordeko egoitza, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak duen berdina izango da eta bilerek gutxienez, bihilabetekotasuna izango dute.

HIRUGARREN.- Behatokiko bileretara, parte hartzaileen gehiengoak horrela erabakitzen duenean, hitzarekin baina botorik gabe, ondorengo hauek bateratu ahal izango dira:

- Karrera Judizialeko partaide bat edo gehiago. Hauetako batek, derrigorrez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Plenoko edo, bere kasuan, Lehendakariak gero Plenoaren berronespenaz aukeratutako Auzitegi Goreneko Epaille izan beharko du.
- Fiskal bat, Estatuko Fiskal Orokorrak hautatua.
- Abokatu bat, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak hautatua.
- Emakumearen Erakundeko ordezkartzan pertsona bat.
- Familia indarkeria izan dutenen Elkarteen kolektiboak hautatutako ordezkari bat edo, bere kasuan, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioak hautatutakoa.

- Beste pertsona fisiko batzuk edo pertsona juridikoen ordezkariak, bereziki, tratu txarrak izan dituzten emakumeen elkartekoak, Batzordeko bileretan beraien agerpena beharrezkoa suposatzen denean.

LAUGARREN.- Bigarren klausulan aipatu den Behatokiak, hurrengo helburuak izango ditu:

- a) Familia indarkeriari buruzko gaietan, Epaitegi eta Auzitegietan hartutako eta Judizial Dokumentazio Zentroaren (JDOZEN) bitartez Behatokira zuzendutako erabaki judizial guztiak batu.
- b) Aipatutako prozesuetan hartutako ebazpen judizialak aztertu.
- c) Familia indarkeriari buruzko prozesuetako jarreipenaren eta gai honetan hartzen diren ebazpen judizialen azterketaren arabera jokabide-proposamen egokiak landu, materiaren gainean, organo gaituei zuzenduak izango diren legeekiko iradokizun komenigarriak barne.
- d) Aplikazioaren jarreipena eta bere kasuan, Hitzarmen honetako II) puntuan aipatutako familia indarkeriaren aurkako jokabidearen Gida praktikoen eguneratzea.
- e) Estatistika judizialak gai honekin erlazionatutako prozesuei jarreipen bat egiteko ahalbidetuko dituen irizpideak finkatu.
- f) Familia indarkeria gaietan espezialdutako kurtsoak proposatu, bereziki, Judizial eta Fiskal Ikasketako partaide eta Justizia Administrazioako zerbitzuan dauden gainontzeko lankideei; beharrezko ikusten diren iradokizun aproposen bitartez aipatutako kurtsoetako edukian parte hartuz.
- g) Familia indarkeria gertakariaren errealitate soziologikoa aztertu, behar denean, ikerketa eta inkesta egokiak egitera bultzatuz. Hauen emaitzen hedapena, erakunde sinatzaileekin lankidetzan eta interesagarria iruditzen zaienean, argitarapenen bitartez egin ahal izanik.

- h) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak BJLOko 98.1 artikulua jasotzen duen aurreikusitako adiera ikertu; familia indarkeriaren gainean hitzegiten duten gaien ezagutza, izaera bakarraz, Epaitegi jakin batzuk jaso dezaten helburuz.
- i) Erakunde sinatzaileek izenpetutako familia indarkeriari buruzko gaien Hitzarmen eta Protokoloen edukiariaren gainean berri eman.
- j) Familia indarkeriari buruzko prozeduren bitartean hartutako neurrien gainean Epaitegi, Auzitegi eta Botere Judizialaren Gobernu Erakundeetatik informazioa eskatu.
- κ) Emakumearen Erakundeko emakume eta gizonen arteko Berdintasun Behatokiari, urtero, burututako jokabideei buruzko informazioa erraztu.

BOSGARREN.- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Judizial Dokumentazio Zentroaren (JDOZEN) bitartez, bere boterean dituen eta lehen klausulan agertzen den epearen barne dauden eta aurrerantzean jasotzen dituen haietako erabaki judizial guztien kopiez, familia indarkeriaren Behatokia hornituko du. Aipatutako erabakiak, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegia errespetatuz eskeiniko dira.

SEIGARREN.- Hitzarmen honek iraupen mugagabea izango du, gutxienez bihilabeteko aurrerapenaz edozein alde sinatzailek salatu ahal izango duelarik; hitzarmenaren babesean erabakitako jardueren amaiera emateko, guztien akordioz erabakitako beste zerbait egon ezean, beldurrik izan gabe.

Eta adostasun froga bezala adierazitako leku eta datan, hiru aletan, Hitzarmen hau sinatzen dute.